

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

62/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Hipoteka Maileguen Erreferentziazko Indizea (HMEI) indargabetzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

62/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Hipoteka Maileguen Erreferentziazko Indizea (HMEI) indargabetzeari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Estatuko agintari eskudunei eskatzen diete bultzatu dezatela ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legea aldatzea, eta Hipoteka Maileguen Erreferentziazko Indizea (HMEI) hipoteka-maileguetarako erreferentziazko tipo ofizial gisa indargabetzeko beharrezkoak diren lege-erreforma guztiak.

2. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute HMEI opakua dela, banku-entitateek eragin dezaketela, ez duela merkatua errepresentatzen eta kaltegarria eta gehiegizkoa dela kontsumitzaileentzat.

3. Arabako Batzar Nagusiek lurraldean operatzen dute banku-entitateei eskatzen diete, aipamen berezia eginez Kutxabanki, berehala utzi diezaiotela HMEI aplikatzeari, itzuli ditzatela kontsumitzaileei gehiegikeriaz indize hori erreferentzia delarik kobratutako diru-kopuru guztiak eta bilatu ditzatela mekanismoak HMEIren aldaeren arabera egindako hipoteka-exekuzioagatiko etxegabetzeak baliogabetzeko. Halaber, Arabako Batzar Nagusiek Kutxabanki eta lurraldean operatzen duten gainerako banku-entitateei exijitzen diete bertan behera utzi ditzatela HMEI aplikazioak kaltetutakoek hasitako prozedura judizial guztietan izapidean dituzten errekurso judizial guztiak.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lehenetsi dezala finantza-zerbitzuak izatea indize horri eusten ez dioten entitateekin.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Abokatuen Elkargoari gomendatzen diote prestakuntza espezifikoa eman diezaiela ofiziozko txandaren atal zibilean inskribatuta dauden kolejiatuei, MHEI erreferentzia gisa erabiltzen den exekuzioetan errekurritu dezaten, opakua baita eta urratzen duelako kontratuetan nagusi izan behar den baimen askea.

6. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diote abian jarri ditzala eskira dituen bitarteko guztiak, baita Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua ere, MHEIren aplikazioak kaltetu dituen pertsona guztiak eta etorkizunean pertsonak babesteko gehiegizko praktika hauen aurrean.

7. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote galdegin diezaiela Europako agintari eta instituzioei aldatu dadila ezen onetsi berri den erreferentziazko indizeari buruzko europar erregelamendu berria, hala aplikagarri izateko banku zentralak sortutako erreferentziazko tipoei, hala nola MHEI.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 19a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA